ARESOKO UDALA
31876 (Nafarroa)

ARESOKO UDALA - Eliz Bidea, z/g. - 31876 ARESO (Nafarroa) - Tel. 948 51 03 27 - C.I.F./I.F.K. P-31-03100-H

ARESOKO UDALBATZAREN EZ OHIKO BILKURA

Areson,2016ko abenduaren 29an, arratsaldeko 19:00etan eta Aresoko udal aretoan, ohiko Udaleko plenoa biltzen da,aurretik Ur Alguero Chivitek Alkate Jaunak deituta, eta ondoren adierazten diren zinegotziak bertaratuak izan direlarik ez ohiko bilkura burutzeko.

Organua : Batzarra
Deialdia: lehenengoa
Eguna: 2016/12/29
Ordua: 19:00

Lekua: Udalaren Batzar Aretoa

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

Mª Asunción Arratibel Onsalo

Jon Gurrutxaga Etxeberria

Xabier Domingo Zubillaga Uranga

Eden Alguero Chivite

Ur Alguero Chivite

Javi Belaunzaran Mariezcurrena

Mikel Baraibar Garmendia

BERTARATU EZ DIRENAK

IDAZKARIA JARDUNEAN

Ione Miren Lazkoz Maiza

GAI ORDENA:

1.- Aurreko aktaren onespena.

2.-Aresoko 2017ko Plantila Organikoaren hasierako onespena.

3.-2016/2;2016/3;2016/4 Aurrekontu aldaketak, hasierako onespena.

4.-Aresoko hirigintza arauen 85 eta 89. artikuluen aldaketaren behin betiko onespena eta 88bis artikulu berriaren behin betiko onespena.

5.- Aresoko Hirigintza Arauen onespena.

6.- Alkate Ebazpenen berrespena.

7.- Eskaera eta galderak.

8.- Denetarik

Esan-eginak eta erabakiak

Alkate jaunak bilera hasi eta berau publikoa izendatua, arratsaldeko 19:00 direnean, Udal Idazkariak frogaturik sesioa hasia izateko,beharrezkoa den bertaratutakoen quoruma nahikoa dela,gai zerrendan jasoak dauden puntuak ezagutzeari ekiten zaio.

1.-Aurreko batzarreko aktaren onespena.

Aurreko batzarreko aktaren laburpena egiten du alkateak eta bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

1.1.- 2016ko irailaren 12ko ohiko batzarreko akta onartzea.

2.- Aresoko 2017ko Plantila Organikoaren hasierako onespena.

Aresoko Alkatea den Ur Alguero Chivitek adierazten du jardunean den idazkariak lanpostua utzi zuenetik hausnarketa prozesu batean murgilduta izan direla eta herritarrei zerbitzu egokiago bat eman asmoz, baita udalaren funtzionamendua hobetu asmoz, udal bulegoko berregituraketa bat eman beharra dagoela uste du.

Aukera ezberdinak landu ostean uste du administrari ofizial bat lanaldi erdian kontratatzea eta idazkari lanpostua mantentzea, osagarririk gabe, zerbitzua hobetu dezakeela.

Administrariak,administrari bati dagozkion lanak eginen lituzke eta idazkariak,berari dagozkion lan eta funtzioak beteko lituzke. Orain arte idazkariak berari zegozkion lanak eta administrari batek egiten dituenak aurrera eramaten zituen, askotan gainkarga handia suposatuz eta lanak egunean eramatea galaraziz.

Honetaz gain, bulegoan bi langile egonik, bat lanaldi osoan eta bestea lanaldi erdian, udalean, beti,harrera emateko norbait izanen da eta festa egunetan izan ezik, udal bulegoa zabalik egonen da.

ARESOKO UDALA
31876 (Nafarroa)

ARESOKO UDALA - Eliz Bidea, z/g. - 31876 ARESO (Nafarroa) - Tel. 948 51 03 27 - C.I.F./I.F.K. P-31-03100-H

Plantilla ondotik ematen da, hitzez hitz:

ARESOKO UDALEKO 2017KO PLANTILLA ORGANIKOA

FUNTZIONARIOAK

Karguaren izena: Zerbitzu anitzetako enplegatua. Lanpostu kopurua: 1. Maila: E. Lanaldia: osoa. Sarbidea: O.L. Baldintza berezia: euskaraz jakitea, B2/A2 (*). Mailako osagarria: %15. Lanpostuko osagarria: %43,69. Administrazio egoera: jardunean.

(*)B2 Ahozkoa; A2 Idatzizkoa.Langileen zerrenda

FUNTZIONARIO IZENEN ZERRENDA

Zerbitzu anitzetako enplegatua: Jesús Javier Nieto Baranda. E maila. 1. gradua. Lanpostuko osagarria, %15 Mailako osagarria: %43,69.Administrazio egoera: jardunean. Sarrera eguna: 2004ko uztailaren 1a.

LAN ESKAINTZA 2017. URTEA

Bi lanpostu eskainiko dira, bata administrazio araubidean eta bestea lan kontratudun araubidean, lanpostu horiek jabetzan bete bitartean. Hauek dira:

ARAUBIDE ADMINISTRATIBOKO LANGILEA

Karguaren izena:Idazkari/kontu-hartzailea: A maila. Lanaldia: osoa. Sarbidea: O.L. Betebehar berezia: euskaraz jakitea EGA/C1. Egoera administratiboa: hutsik.

LAN-KONTRATUDUNA

Karguaren izena: administrari-ofiziala. Maila: C. Lanaldia: erdia. Sarbidea: Oposaketa-lehiaketa. Betebehar berezia: euskaraz jakitea EGA/C1 Lanpostu osagarria: %14,20. Maila osagarria: %12. Egoera: hutsik.

Alkateak azaldutakoa eta Biderka Abokatuak plantila organikoaren inguruan egindako txostena aintzat hartuta, aho batez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

2.1.–Hasiera batean onestea Aresoko Udalaren 2017. urteko plantilla organikoa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 236. artikuluan eta horrekin bat datozen arauetan xedatuari jarraikiz.

2.2.–Onetsitako plantilla organikoak eta lan eskaintzak 2017ko urtarrilaren 1etik aitzina izanen dute indarra, gerora aldaketak egiten ahalko bazaizkie ere.

2.3.–Onetsitako espedientea jendaurrean jartzea 15 egun baliodunean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki oholean iragarkia jarri ondotik.

2.4.–Erreklamaziorik aurkezten bada,osoko bilkurak horiek ebazteko berariazko erabakia hartuko du, plantilla organikoaren behin betiko onespenean.

Inork erreklamaziorik aurkeztu ezean, 2017. urteko plantilla organikoa behin betiko onetsitzat joko da, arestian aipatu jendaurreko epea bukatutakoan.

2.5.–Erabaki horien berri ematea Aresoko Udaleko langileei.

3.- 2016/2;2016/3;2016/4 Aurrekontu aldaketak, hasierako onespena.

Aresoko alkateak azaltzen du, alde batetik, Plazaola Partzuergoak Laboral Kutxarekin berme pertsonala duen 65.000,00 euroko mailegu bat itundu duela eta mailegu horren fidatzaileak Areso, Larraun, Leitza, Imotz eta Arakilgo udalak direla.

Aresori kopuru horren %2,60aren fidatzaile izatea dagokio, 1.690,00 eurorena.

Izaera mankomunatua duen mailegua da eta Plazaola Partzuergoak dituen ohiko gastuei aurre egiteko hartu izan da.

Guzti hau dela eta, 2016.urtean partida hau aurre ikusia ez zegoenez, aurrekontu aldaketa egin beharra dago partida berri bat sortuaz.

Eta gauza bera gertatzen da Plazaola Partzuergoko gida turistikoari dagokionez.Udalerri ezberdinen arteko elkarlanean aurrera eraman beharreko ekimen turistikoa zianik, kartel eta panelen oinarritutakoa, partida berri bat sortu beharra dago finantzatu ahal izateko.

Amaitzeko zera azaltzen du, oinezkoen bidearen bigarren zatia egiterako garaian diru kopuru bat aurre ikusi zela, baina lanak esleitzerako garaian uste baino kopuru handiagoa suertatu dela egin diren beharrezko aldaketa batzu direla eta.

Egun 9.002,00 euroko kreditua duen partida onartua dagoela baina inbertsioa denera 15.820,15 eurokoa izanik, partida honen kreditua 6.818,15 eurotan handitu beharra dagoela. Inbertsio honen finantzazioa Aresoko udalak bere soberakinetik 3.300,15 euro jartzearekin konponduta egonen dela adierazten du, gainontzekoa Nafar Gobernuak aurreko inbertsio planaren barruan jasotako libre erabakitzeko diru laguntzarekin osatuko delako, 8.900 eurorekin;eta falta den gainontzekoa,Kirol Mankomunitateak mendi martxan ateratako irabaziekin, herritarren parte hartzeagatik, inbertsioa osotasunean kitatu ahal izanen da.

Emandako azalpenak eta idazkari/kontu hartzaileak egindako txostena aintzat hartuta, aho batez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU :

3.1.- 2016/2,2016/3 eta 2016/4 aurrekontu aldaketak hasera batean onartzea.

ARESOKO UDALA
31876 (Nafarroa)

ARESOKO UDALA - Eliz Bidea, z/g. - 31876 ARESO (Nafarroa) - Tel. 948 51 03 27 - C.I.F./I.F.K. P-31-03100-H

3.2.- Jendaurrean egonen dira hamabortz egun baliodunean, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aitzina.

3.3.- Jendaurrean egoteko aldia iraganik,aurrekontuaren aurkako erreklamaziorik aurkezten ez bada behin betikoz onetsitzat hartuko da, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko Foru Legearen 202 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

4.- Aresoko hirigintza arauen 85 eta 89. artikuluen aldaketaren behin betiko onespena eta 88bis artikulu berriaren behin betiko onespena.

Aresoko alkateak gogoratzen du Aresoko hirigintza arauen 85 eta 89. artikuluen aldaketen hasierako onespena, fatxada eta tximiniei dagokienez;eta 88bis artikulu berriaren hasierako onespena, eraikin osagarriei dagokienez, 2016ko irailaren 12ko ohiko batzarrean onartu zituztela.

Haserako onespen hau argitara eman zela Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 74. eta 79.artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Nafarroako 191.Aldizakri Ofizialean, 2016ko urriaren 3an,haserako onespena argitara eman zela eta espedientea jende aurrean hilabetean egon izan dela inongo erreklamazio, kexa edo oharrik aurkeztu ez zelarik.

Guzti hau dela eta, aho batez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

4.1.- Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 81.1 artikuluan xedatuaren arabera, behin betiko onestea Aresoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 85 eta 89. artikuluena, fatxada eta tximiniei dagokienez; eta 88bis artikuluaren sorrera,eraikin osagarriei dagokienez.

4.2.- Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki oholean argitara ematea.

4.3.-Behin betikoz onesteko egintza honen kontra, bide administratiboari amaiera ematen baitio, errekurtso hauetakoren bat aurkez daiteke, hautara:

a) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, erabakia jakinarazten denetik hasita.

b) Berraztertzeko errekurtsoa, hautara, Aresoko Udalari zuzendua, erabakia jakinarazi eta hilabeteko epean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aitzinetik; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazten denetik hasita.

5.- Aresoko Hirigintza Arauen onespena.

Aresoko alkateak adierazten du Aresoko Hirigintza Planeamenduko Arauak 1996 urtekoak badira ere, hauek ez direla inoiz Nafarroako Aldizakri Ofizialean argitaratuak izan.

Onartu zirenetik gaur egun arte, arauek alor ezberdinetan aldaketak izan dituzte eta aldaketa hauek iragarriak izan direla adierazten du.

Beraz Aresoko Hirigintza Planeamenduko Arauen Testu Bateratua bere osotasunean irakurtzen du eta hau onartua izan dadila proposatzen du.

Irakurketa eta azterketa aintzat hartuta, aho batez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

5.1.- Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 81.1 artikuluan xedatuaren arabera, Aresoko Hirigintza Planeamenduko Arauen Testu Bateratua onartzea.

5.2.- Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki oholean argitara ematea.

5.3.-Behin betikoz onesteko egintza honen kontra, bide administratiboari amaiera ematen baitio, errekurtso hauetakoren bat aurkez daiteke, hautara:

a) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, erabakia jakinarazten denetik hasita.

b) Berraztertzeko errekurtsoa, hautara, Aresoko Udalari zuzendua, erabakia jakinarazi eta hilabeteko epean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aitzinetik; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazten denetik hasita.

6.-Alkate Ebazpenen berrespena.

Alkateak azken boladan emandako ebazpenen berri ematen du eta zinegotzi guztien adostasunez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

5.1. -42/2016-69/2016 Alkate Ebazpenak berrestea.

7-Eskaera eta galderak.

8.- Denetarik.

Aztertu beharrekoa aztertuta, 20:15 orduak izanda, Udal bilkurari bukaera ematen zaio eta hemen nire aurrean dauden jaun-andereek, nirekin, Idazkariarekin Akta sinatu dute. Ziurtatu egiten dut.

ARESOKO UDALA (Nafarroa)

ARESOKO UDALA Idazkaritza Secretaría AYUNTAMIENTO DE ARE